

TOKIKOM

# karkara

**Orioko eta Aiako aldizkaria**

2012ko azaroaren 9a

325 zenbakia. 24. urtea



## Landetxean lan eta bizi

Bezeroekin partekatzen dute beren baserria Elixabete Etxezarretak eta senarrak. Sei urte daramatzate *Altzibar Berriren* kargu

**05**

**Orioko kontuak**

*Kaleko egitasmoa*

**10**

**Aiakoberri**

*Urdanetako sanmartinak*

**19**

**Adarretatik helduta**

*Maider Beldarrain Iribar*

**25**

**Herritarra**

*Olatz Lizaso, Intza Unanue*

PIZZERIA  
  
 KALETA  
 ARRANTZALE KALEA, 10  
 TELEFONOA: 943 24 89 46



gizarte  
**kutxa**

**TANATORIO ZARAUZ**  
  
 EUROFUNERARIAS TALDEA  
**Hileta eta zerbitzu orokorrak**  
 \* Donostia eta probintziako ospitaleetan  
 \* Aldioroko zerbitzua  
 \* Belatorio gelak  
 \* Koroioak, eskelak, tramitazioak...  
 Araba kalea, 35 Zarauz  
 Tel: 943 89 49 37 / Faxa: 943 89 49 41  
 e-mail: harrespil@harrespil.net

**libe**  
 dietetika  
 elikadura aholkularitza  
 eusko gudariak 35 :: ORIO  
 [ sarrera Arrantzaile kaleak ]  
 943 53 64 94 - 697 23 86 56  
 libegarmendia@gmail.com

**LUXARBE**  
 igeltseritza  
 Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.   
 Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe   
 Lan txukuna eta merkea   
 Tfnoak: 943 83 59 00

**KAIUA**  
  
 Plater konbinatuak, bokatak, hamburgesak...  
 ANBARKO PORTUA 35, BEHEA Tf: 943 840 060

943 572 870  
  
**KOASTA**  
 Wifi zerbitzua  
 Kopak, gau giro aparta...

**KOLON TXIKI**  
 abarategia  
 jatetxea  
 Herriko Enparantza, 4  
 ORIO  
 Tel. 943 83 00 44

**kutixi**  
 kafetegia  
 GOSARI GONDAK  
 Arizaga 9, 20810 Orio  
 Tf: 943 13 15 17

Maidar Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.  
 Arrantzaile 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa  
 Tel. 943 575 361  
**ninarri**  
 PODOLOGIA ZENTROA

*Lizaso*  
 dekorazioa  
  
 Eusko Gudari, 48  
 Tf: 943 83 07 84 Faxa: 943 84 87 35

HEBATEGIA  
**PATXI OLIDEN**  
 URDEITZGIA  
 Hemengo haragia.  
 Etxeko produktuak: tripaki, odolki, txekorra, txorizo, kroketak...  
 Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

  
 www.karkara.com  
 Alabak, argiak, intsektu, apurak, zurrak...  
 Fresko-fresko, zuretzat!

**Portu**  
**ERRETEGIA**  
 Santo Erreka Auzoa, 25  
 943 89 44 34  
 20809 AIA-ORIO  
*brakak, barandak, oinak  
 puzkako erdian, erdian...*

  
**RAMIRO**  
 argazkiak  
 www.fotoramiro.com  
 fotoramiro@fotoramiro.com  
 610 69 76 68  
 943 83 10 48

## Alkar soziedadean, puntuei erantzunaz

**1**

*Baserriak ba al du etorkizunik?*  
Hori ez dadukazu galde beharrikan, lanik ez da itsasoan ezta ere fabrikan, ezin alde egingo det utzita korrikan.

**2**

*Baserritarra beti ari da negarrez,* gero malkoak nahizta kentzen ditun errez, lana egin beharra dauka derrigorrez, baina oso gutxitan ikusten da parrez.

**3**

*Kulo ez al du joko Diputazioak?*  
Hantxe sartuta dauzkat nire akzioak Bilduk ematen baitu demostrazioak, kalmatuko ditugu gure sesioak.

325

## karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

**Kultur Etxea,**  
20810 Orio  
943 831 527  
karkara@karkara.com  
www.karkara.com

### Editorea

Karkara taldea  
kultur elkarte

### Zuzendaria

Lore Berasaluze

### Erredakzio taldea

Irati Agirreazaldegia,  
Onintza Aiestaran,  
Iñigo Gaiton,  
Iker Gurrutxaga,  
Eli Lasa  
eta Idurre Lizarralde

### Publizitatea

Iker Gurrutxaga

### Publizitatearen diseinua

Iker Gurrutxaga

### Testuen zuzenketa

Elizabete Manterola,  
Joseba Orella  
eta Rikardo Uzkudun

### Ale honetako laguntzaileak

Maider Beldarrain,  
Pat Cowie  
eta Rosi Lazkano.

### Laguntzaileak

Zigor Esoain  
eta Iñaki Iturain

### Diseinua

Danel Agirre  
eta Karkara taldea

### Banatzzaileak

Kattalin Bollain eta  
Esti Uranga (Orioko)  
Eli Irureta (Aia)

### Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)  
Lege gordailua SS-346/90  
ISSN 1132-1105  
Tirada 3.200 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berremen daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.



ERRIKOTXIA

### PUBLIZITATE PREZIOAK

#### Iragarkia alero jarrita

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

#### Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

#### Publizitatea kontratatzeko

**Iker Gurrutxagarekin hitz egin**  
(943 831 527) edo  
karkara@karkara.com  
Prezio hauei BEZa gehituko zaie

### LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA

Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
hedabidea

## Pertsona nagusiak eta estereotipoak III

Estereotipoei buruz egiten ari naizen gogoetei bukaera emateko, labur-labur azken bi galderei erantzun nahi diet: Zer eskatzen diegu hedabideei? Zer Erakundei?

Hedabideei:

Kultura bakoitzak adinekoei buruzko irudi jakin bat eraikitzen eta transmititzen du. Gure gizartean, hedabideek –irradiak, telebistak, egunkariak– adinekoei buruzko irudi negatiboa transmititzen dute egon diren eta oraindik dauden estereotipo negatiboetan oinarrituz, galeraren eta ezintasunaren ideietan jarriz arreta arreta nagusia, eta bizitza aktiboari buruzko ikuspegia mugatu eta pobretzen da modu horretan.

Guk nahiko genukeena, aldiz, gizartearentzat baliagarriak diren eginkizunak betetzeko pertsona heldu eta konpetenteak garelako dioen irudia da.

Horretarako, gaur egun bertan, gizarte parte-hartzaileago, bidezkoago eta solidarioago baten eraikuntzan, gizarte eragile gisa jokatzeko ari garen, edo hasiak garen, paperaren informazioa ematea gustatuko litzaziguke.

Azken batean, hedabideek adineko pertsonen buruzko beste irudi bat sortzen lagundu behar digute, egungo errealitatearekin bat etorriko dena.

Erakunde berriz zera eskatzen diegu:

Adineko Pertsonen Parte Hartzerako Plan Integrala prestatzea eta aplikatzea. Plana Eusko Jaurlaritzarekin batera sustatu eta garatu behar da.

Adineko Pertsonen Institutua sortuz erakunde aitortza jasotzea, adineko pertsonak gizarte esparru guztietan ahalduzko eta beren parte hartzea bultzatzeko organo publiko baten bidez.

■ **A. Campos**

## La Mari

Azken aldi honetan lagun berriak egin ditut. Nire inguruan zabiltzatenek edeki asko frogaz dezakezue hori. Horien artean nor ez ditu ezagutzen Domin edo bere ama, izatez Jaeneko eta bizitokiz Alacanteko dena, *La Mari*?

Behin eta berriz gure izate eta izaeraren berri jakin nahian mila eta bat galdera egiten dizkit elkarrekin hitz egiten dugun guztietan: gure hizkuntzaz, geografikoki non kokatuta gaudenaz, eta abar luze batez.

Aurrekoan, azken KARKARA irakurtzen ari nintzela, Sukiaren *Moila bazterretik* orrian nengoela, halaxe esan zi-

## Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidal daitezke posta elektronikoz honako helbidera: [karkara@karkara.com](mailto:karkara@karkara.com) edo gure lokalera eskura ekarri (kultur etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

dan: *Mira ke fazil ke é, y luego disen ke no setentié na. Será ke yastoy aprendiendo el vajco. Mira aki dize: la independenzia de la vagina. Este artículo ha de ser sobre la independenzia de la muje vahca....*

Barrez lehertu nintzen.

Inoiz ez bezalako arreta jarri nion Xabier Sukiak idatzitakoari eta bere testuko hitz guztiak emakumeok idatzi bagenitu bezala hartu ditut. *Independienteak bagina, zoriontsuagoak izango ginatete. Gu eta gure ondokoak.*

Egizu frogaz, zer iruditzen? ■ **Marisa Arruabarrena.**

## Antzerkia dela-eta

KARKARAKO azken zenbakian Imanol Urkizu eta Marijo Manterolaren iritziak irakurri ondoren, nirea aireratzera ausartu naiz.

Marijo eta beste hainbatekin antzerki tailerrean ibilia naiz, Marije Gurrutxaga, Patxi Santamaria eta Iñake Irastorzen zuzendaritzapean. Daukadan adinaren arabera, ikasi dezakedan guztia gustuko dut, azken batean bururako osasungarria baita. Gustuko ditudan horietako bat antzerkia da.

Baina hau dena aipatu ondoren barruan daukadan min bat azaldu nahi nuke.

Balearen harrapaketa oroitzen zela-eta, joan zen urtean kale antzerki bat antolatzen. Hainbat entsegu ondoren zerbait antolatzen zen, bai! Niretzat ohore handia izan zen Iñake Irastorza eta beste emakume bat –ez naiz bere ize naz oroitzen– Donostiatik etortzea, gidoia antolatu eta buru belarri saiatzea gu bezalako ezjakinak prestatzera. Gu saiatu ginen ahal genuen ondoen egiten, baina dakienak esan dezala: zer gertatu zen egun horretan? Goiko Kalen prestatzen ari ginela, gazte talde batek boikoteatzea pentsatu bakarrik ez, egin ere egin zuen, kalejira antolatuz ttunturro eta guzti. Iñakeren lagunak hala esan zidan: *berriz pasatzen badira, dena bertan behera utziko dugu.* Ondorengo egunetan hainbat zurrumurru entzun nituen. Gazteekin kontatu gabe prestatu zela dena etab. Niri berdin zait gazteek, jubilatuek, ezkondukek edo ezkongabeek antolatzea. Niri antzeztea gustatzen zait eta kitto. Hau bizi izan ondoren antzerkian parte hartzeko gogoak alde egin dit eta horrekin batera nire adina aurrera doanez zoritxarrez bizitzako aukera bat ere galtzeaz jakitun naiz. ■ **Josune Elortza Lekuberrieta.**

## Birziklatzeari buruz

Arraina erosterakoan plastiko-paper gutxiago erabiltzeko *Ontziratuz aitez* kanpaina jarri dute martxan Udala Elkarrekin, Orioko eta Aiako Udalek eta bi herrietako arrandegiek. Primeran!

Ontziak –*tuperwareak*– plazan banatu dituzte eta Aian ez dakit, baina Orion ez da bat bera ere geratu sobera. Kontxo! Korrika eta presaka joan gara denok, opariaren bila. Birziklatzeko gogoia ikaragarria izango da!

Nahi nuke, baina zaila egiten zait bahori sinestea; lehendik tuperrak existituko ez balira bezala!

Batzuk erregalua beharrezko izango dute, agian, arrandegira ontziarekin joateko. Triste da gero hori bera norberak bere kabuz egiteko gaitasunik edo gogorik ez izatea, baina hobe orain gero edo inoiz baino.

Beste batzuk, aldiz, makarroiak gordetzeko erabiliko dute Herriko Plazan jasotako oparia. A zer pagotxa! Gauza bat gutxiago erosteko eta gainera, makarroiak ez zaizkie bigunduko oraingoan!

Ez gaitezen beste kanpaina baten zain egon: erabili ontziak arraina erosteko bai, baina baita haragia, arrautzak, torlojuak, barazki txikiak, botikak, arkatzak... erosi eta etxera eramateko ere. ■ **Herritarra**

# Euskararen erabilera bultzatzeko *Kaleko* zerbitzua jarri dute martxan

Urola Kostako herritarren hizkuntza eskubideak bizitza sozialeko hainbat esparrutan, hala nola merkataritzan, kirolean, aisialdian, betearazten laguntzea da egitasmoaren helburua

*Kaleko* Euskara Zerbitzua jarri du martxan Urola Kostako Udal Elkarteak Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiako Udalekin elkarlanean. Bizitza sozialeko esparruetan euskararen erabilera bultzatzea du helburu. Klean eragin nahi dute eta herritarren hizkuntza eskubideak betearazten lagundu. Horretarako, euskara teknikarien lanaren osagarri izango den zerbitzua abiarazi dute *kaleko* erabileran begia jarrita.

Jabier Zabaleta Orioko Euskara teknikariak uste du *Kaleko* zerbitzua *Euskara Zerbitzua kalera ateratze-ko eta bertan euskararen erabileran eragiteko ahalegin* bat dela. Eskualde osoan eragingo du eta horrek dimentsio berezia ematen diola ere iruditzen zaio: *Ustet, euskararen inguruko eskualde osorako egitasmoak gero eta gehiago ikusiko ditugu. Ona litzateke horrela izatea.*

*Kaleko* zerbitzua behar bezala eskaintzeko hiru langile kontratatu ditu Udal Elkarteak: Lore Esnal, Jaione Larrarte

eta Julio Lopez. Eragin esparru berberak landuko dituzte hiruek, beti ere, herrietako egoera soziolinguistikoki egokitzuz: merkataritza, kirola, aisialdia...

## **Merkataritza lehenengo**

Lehendabizi landuko duten esparrua zein izango den erabaki dute dagoeneko: merkataritza. Euskararen erabilera neurtzeko eta hobetzeko proposamenak egitea izango da lehen lana. Orion ostalaritza, merkataritza eta zerbitzuetako 30 establezimendu inguru bisitatu ditu Julio Lopezek eta harrera ona egin diotela esan du. *Sumatu dut nahiko ohituta daukela dendariak eta ordutegiak, kartelak... badauzkatela euskaraz, beste batzuetan ere horrelako programak izan direlako Orion, baina interesa agertu dute.*

Establezimenduetako ageriko elementuetan euskararen erabilera normalizatzea helburu hartuta, zerbitzuen katalogoa eskaini die Lopezek merkatariei orain artean egindako bisitetan. Ge-

rora, beste tresna eta zerbitzu batzuk ere eskainiko dizkie: entrega-agiri, faktura, ordainagiri... ereduak, ikastaroak eta oinarrizko materiala, itzulpenak egin eta zalantzak argitzeko zerbitzua, eta dirulaguntzei buruzko informazioa. Ondoren beste eremu batzuetara zabaltzen joango da dinamizatzaileen lana.

Aurrez aurre ez ezik [www.kaleko.org](http://www.kaleko.org) webgunea baliatuz ere eskainiko du *Kaleko* bere zerbitzua. Han izango dira, besteak beste, euskararen inguruko albisteak, ekitaldi eta informazioen agenda, merkatarientzako zerbitzuak eta eskaerak internetez egiteko aukera, eta euskaraz idatzi eta lan egiteko tresnak.

## **Hizkuntza eskubideak**

Hizkuntza eskubideen gaineko gorabeherak dituzten herritarrei ere, laguntza eskainiko die *Kaleko* webgunearen bidez. Izan ere, arduradunen esanetan, *egunerokoan nahiz eta euskaraz bizitzeko nahia izan, ez da beti erraza jasotzen ditugun zerbitzu edo produktuetan edo izaten ditugun harremanetan euskaraz aritzea. Eta ez da erraza gure hizkuntza eskubideak zaintzen etengabe aritu beharra.*



Dendaz denda dabil Julio Lopez Orioko merkatariei *Kaleko* egitasmoa aurkezten. KARKARA



Hamabost inguru lagun bildu dira bazkalondoetan Kultur Etxean ikastaroak egiteko. KARKARA

# Bezeroak zaintzeko eta erakartzeko ikastaroak egiten ari da Arkupe

Erakuslehoak nola jarri behar diren, bezeroari arreta pertsonalizatua nola eman behar zaion eta salmenta teknikak nolakoak diren ikasiko dute, besteak beste

Bezeroei arreta egokia eskaintzeko eta herriko dendak erakargarri eta eguneratuta egon daitezen, elkarteko dendarienezako hainbat ikastaro antolatu ditu Arkupek. Izan ere, alde batetik, bezeroei arreta pertsonalizatua eman nahi diete elkarteko kideek, eta, horrez gain, beharrezko ikusten dute gaur egungo merkataritza-teknikak bere egitea.

Arkupeko bazkideentzako hiru ikastaro antolatu dituzte horretarako: Formabask taldearen eskutik, erakuslehoak txukun eta eder atontzeko eta argiztatzeko aholkuak hartu zituzten irailean 15 bat lagunek; trebetasun emozionalaz aritu dira urrian –PIEK enpresako kide bat izan dute irakasle–; eta salmentaz eta marketingaz jardun dute azaroko lehen astean bertan.

## Diru-laguntzak

Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntzari esker antolatzen ditu urtero Arkupe merkatarien elkarteak bere bazkideentzat ikastaroak. Zehatz-mehatz, kostuaren %80 hartzen du beregain Jaurlaritzak, beti ere, prestakuntza saioak antolatzen dituena elkarte bat baldin bada.

Horrez gain, bestelako diru laguntzak ere jasotzen ditu Arkupek, Orioko merkataritza indartzeko: kale animaziora bideratutakoak –musika taldeak ekarri zituztenekoa kasu–, eta hirigintza komertziala sustatzera zuzendutakoak –txu-txu trena erosten laguntzeko erabili dena, esaterako: 75.000 eurotik 60.000 euro jarri ditu Arkupek helburu horretarako–.

## LABUR

### Kultura

#### Disko berria Gozategik

Gozategi taldeak 20 urte bete ditu aurtengo plazaz plaza hasi zenetik. Hori horrela izanda, 1992-2012 *All Stars* izeneko disko berria kaleratu du. Urteotan argitaratutako kantuen bilduma osatu dute, beren abesti kuttunenekin. Elkar diskoetxearen zigilua darama diskoak eta Mikel Irazoki –Miguel Boséren zuzendari artistikoa– izan da ekoizlea. Nahasketetan, 3 *Grammy* irabazitako Pepo Scherman aritu da, eta, zuzeneko musikariez gain, Yuri Nogueira –besteak beste, David Bisbal eta Miguel Boséekin aritua– perkusio-jotzailea izan dute ondoan.

### Tres Sesenta filma

Alex Ezkurdia zuzendari legorretarrak surfearn oinarritutako *Tres 60* bere lehen filmeko hainbat eszena grabatu ditu Orion: San Martinen eta Anibarko Portuko etxebizitza batean. Raul Merida, Sara Salamo eta Guillermo Estrella izan ziren Anibarko Portuan. Goenkaleko zuzendari izan zen Ezkurdia eta lan harreman horrek honako joera eman diolako aukeratu du Orio. Grabaketak bukatu dituzte eta datorren urteko maiatza edo ekaina aldera estreinatzekoa da filma.

### Martxan da esperientzia eskola

Adinekoek prestakuntza jaso eta elkartrukerako Esperientzia Eskolan hasi dute ikasturtea. 50 urtetik gorako 19 lagunek hartu zuten parte iaz eta diploma banaketan esan zuten oso gustura aritu ziren aurreko ikasturtean. Gehienak bertan izango dira aurtengo ere, baita berri batzuk ere talde handituz.



Kanpinean jarriko dituzten bungalowen tarifak 60 eta 120 euro artekoak izango dira. KARKARA

# Kiroldegiko, kanpineko eta musika eskolako tasak igo ditu Udalak

2013ko ordenantza fiskalak behin behinean onartu zituen Udalak urriko batzarrean. Tasak, orokorrean, izozteaz ez ezik, kanpineko bungalowen tarifak ere zehaztu zituzten, besteak beste

Ezohiko udalbatzarra izan zen urriaren 30ean udaletxean eta besteak beste 2013ko ordenantza fiskalak jarri zituzten mahai gainean. Idazkariak azalpen guztiak eman ondoren, Bildu eta Orain taldeen aldeko zazpi botorekin eta EAJ-ren aurkako bostekin behin behineko onartu egin zituzten.

Ordenantza fiskalen harira, Beñat Solaberrieta alkateak adierazitakoaren arabera, egoera ekonomiko aikusita, tasa gehienak izoztea erabaki dute. Hala ere, salbuespenak izango dira hainbat tasa-

tan. Zerbitzuak egungo egoerara egokitu dira esan zuen alkateak.

Kanpineko tasei dagokienez, egonaldi jarraitua egiten dutenei KPIa eta 6 puntu igoko zaizkie gastuak; tasa arrunten zenbatekoak KPIaren arabera izango dira; bietan BEZa kanpo. Kiroldegiko kuotak eta musika eskolakoak, berriz, KPIa eta 4 puntu egingo dute gora. Udalarentzat ekonomia alorrean izango duten karga baloratu ondoren, erabil-tzaileek gehiago ordaintzea erabaki du Udalbatzak.

Horiez gain, hondartzako aparkalekuen tarifa orduko 1,20 eurotan zehaztu da; aiarrek txartela 40 euro ordaindu beharko dute.

Garaje itxiei dagokienez, oinarriari BEZa gehituko zaie kiroldegikoei; Men-

## Zergetan, inor erroldatuta ez dauden etxebizitzei, ohiko bizileku ez direnei, %100eko errekaragoa egingo diete 2013an

dibeltz futbol zelai azpikoen hilekoa 74,29 eurokoa izango da.

Hondakinen tasak, aldiz, KPIaren arabera igoko dituzte, baina elkarte gastronomikoen igoera %10ekoa izango da; hondakinak gaika biltzen dituzten elkartei, aldiz, KPIa bakarrik igoko diete.

### Etxebizitza hutsak

Zergetan ere hainbat igoera egin dituzte. Ohiko bizileku ez diren etxebizitzei, %100eko errekaragoa egingo diete. *Etxebizitzak betetzeko bideak ezartzeko, hutsak daudenak hala egoteko oztopo fiskalak jartzea da lehen pausua*, dio alkateak.

Txosna, eszenatokia eta txu-txu trenaren alokairuen prezioak ere ezarri dituzte. Txosnarena, 150 euro da eguneko eta garraioa, muntatzea eta kentzea, 900 euro. Eszenatokiarena, berriz, 1.700 euro garraioa, muntatzea eta kentzea eta egun bakoitzeko 240 euro. Txu-txu trenarena, berriz, garraiorik gabe, 1.000 euro eguna kanpoan eta herrian eta 200 euro orduko.

Bestalde, kanpinean jarriko dituzten bungalowen prezioak ere erabakita daude. Denboraldiaren eta bungalow bakoitzaren tamainaren arabera izango dira, txikienak bi laguntzat baitira eta seirentzat handienak. Uztailean eta abuztuan 80 eta 120 euro artean ordaindu beharko da; ekainaren 15etik 30era, irailaren 1etik 15era, San Nikolasetan eta zubietan 70 eta 105 euro artean; eta urteko gainontzeko egunetan 60tik 90 euro bitartean. Ezinduentzako egokitutako bungalowak ere izango dira.

### Arrantzako lan sarea

Arrantzaren inguruko *Grupo de accion costera* lan sarearekin bat egitea ere adostu zuen aho batez Udalak. *Horrelako lan sare batean parte hartzeak herriko arrantza sektorea indartzea eta Europatik diru-laguntzak jasotzea ahalbidertuko du*, dio Solaberrietak.

EAJk Emakumeenganako Indarke-riaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira aurkeztutako adierazpen instituzionala ere aho batez onartu zen.

# Elustondo, Lazkano, Martinez, Ziani, eta Zumeta irabazle surf txapelketan



Olatu onak izan zituzten ostiralean. KARKARA

Bost kategoriatan banatuta jokatu dute aurtengo Orioko surf txapelketa. Azaroaren leian eta 2an egin zituzten txapelketako saio guztiak, itsasoaren egoera ona zela aprobeztatuz

Ostegunean, azaroaren leian, goizean goiz hasi zen Orioko 19. surf txapelketa. Giro ona izan zen nagusi, eguna eguzkitsua eta itsaso lasaia, olatu txikikoa, izan baitzuten.

Egoera baliatuta, gazteenen saio gehienak jokatu zituzten: 16 urtez azpikoak taulakoenak eta *bodyboard*koak. Baina eguerdian eguraldia goibeldu eta ekaitza etorrita, itsasoa nahastu zenez, txapelketa bertan behera utzi zuten antolatzaileek hurrengo goizera arte.

Ostiralean, bestalde, eguraldia lagun izan zuten txapelketa behar bezala egin ahal izateko.

Pare bat metroko olatuak, eguzkia eta hego haizea izan zituzten surflariak txapelketak irauten zuten denboran. Partaide txikientzat gogorra izan bazen ere, baldintza paregabe horiek baliatuta, goizeko 09:00etan ekin zioten berriz txapelketari. *Open* kategoriako saioak izan ziren 17:00ak arte.

## Finalak

Maila aparta izan zen txapelketan antolatzaileen hitzetan: *Surflariak oso dotore aritu ziren txapelketak iraundako denboran eta guztia ongi joan zen. Istripu txiki bat ere izan genuen. Andoni Fernandezek 10:00ak aldera bere oholaren gilak izterrean sartu zituen eta.*

Bost kategorian izan ziren. Xanti Martinezek irabazi zuen *open* kategoriako txapelketa, bigarren Mikel Agote izan zen eta hirugarren Iñigo del Hoyo. Nesketan Sonia Zianik irabazi zuen, eta, atzetik, Ruth Aramendi eta Izaskun Zendoia izan zituen hurrenez hurren. 16 urtez azpikoetan Lander Zumeta izan zen txapelduna; bigarren Paulo Argibe eta atzetik Unai Duran. *Bodyboard*ean Mikel Elustondo izan zen garaile Andoni Makazaga eta Mikel Atxegaren aurretik. Fermin Lazkano nagusitu zen *longboard*arekin, Iker Ostolaza eta Xabier Bengoetxea finalean garaituta.

## LABUR

### Giza proba

#### Neskak irabazle Zumarragan

Orioko *Heldu!* herri kirol taldearen izenean, neska koadrila batek giza proba jokatu zuen Zumarragan azaroaren 4an. Buzkanta feriaren inguruan antolatu zuten proba eta Ergobiko nesken taldea izan zuten parez pare oriotarrek. Talde bakoitzak 20 minutuko txanda izan zuen 550 kiloko harriari tiraka jarduteko. Behin lanak bukatuta, oriotarrak izan ziren Zumarragako giza probako garaile.

### Pilota

#### Indo eta Beldarrain txapeldunorde

Urriaren 27an jokatu zuten Arrate Indok eta Naroa Beldarrainek Gipuzkoako emakumezkoen 2. mailako gomazko pala txapelketako finala. Zarautzen jokatu zuen finala bikote oriotarrak, bertakoen kontra. Hasiera batean Maite Redondok jokatu behar bazuen ere, Leire Paredes eta Itxaso Etxabe izan zituzten aurrean. Partida ondo hasi zuten, 13-8 irabazten hasita, baina 14nako berdinketa eta gero zarautzarrek nagusitu ziren jokoan. Azkenean, 30-23 irabazi zuten zarautzarrek eta txapela haientzat izan zen.

### Frontenisa

#### Hiru jardunaldi jokatuta

Urriaren hasi zuten frontenis txapelketaren hirugarren jardunaldia jokatzeko zen KARKARA inprentara bidean zela. Aurretik bi jardunaldi jokatuta, bigarrenen alde handiagoak izan ziren markagailuan lehenengoan baino. Kanpotik etorritako jokalariak bikain ari diren arren, herriko bikote batzuk ere ongi ari dira: Asier Lizaralde eta Aritz Lertxundik, esaterako, bi partidak irabazi dituzte, lehenengoan 30-9 eta bigarrena 30-0. Jon Itxaso eta Ugaitz Urangak ere bitik bi irabazi dituzte, 30-18 azkena Arruti eta Illarramendiren aurka.

**LURDES**  
KARKARDEGIK

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

Ille zapaindegia  
**MARIJO**

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - bajo  
Tel. 943 13 47 29  
ORIO

**MIRANDA**  
AROTZ LANAK

tarima, ate, leiho, eskalera...  
behar diren arotz lanak  
egino dituztegu


Urdaneta bidea, 1 -669 42 32 70- ZARAUTZ

**ODITZ**

Forma zahaleko sintoniak  
guztiak eta emakumeentzat

tel. 943 83 00 89





ZASTek 70 inguru jokalaria izango ditu aurten Orion jokatzeko. Argazkian daude gehienak. ZAST

## Zazpi saskibaloitalde ari dira aurten lehiatzen Orion

Mutilen bi taldek eta nesken bost taldek hartzen dute parte lehiaketan ofizialetan. Horietatik bitan oriotarrak eta zarauztarrak jokatzeko dute elkarrekin.

Duela bost urte hasi ziren saskibaloiko Gipuzkoako txapelketak berriz ere Orion jokatzeko. Talde bakarra zen hasiera hartan, 1996an jaiotako neskek osatzen zutena. Eskola kirolean hasi ziren haiek eta han egindako lanaren emaitza izan zen Ainhoa Fernandezek infantiletan 2007an osatutako taldea.

Urte hartan hasi ziren ZAST eta Orioko Herri Ikastola infantil eta kadeteetan jokatzeko taldeak osatzeko elkarlanean. Hasiera hartan Zarauzko talde batek entrenatzen zuen Orion, baina orduetik hona gauzak aldatuz joan dira.

Usoa Sorazuk, ikastolako ordezkariak, dionez, *hutsune bat zegoen neskek eskola kirola bukatu eta jarraipena ematerakoan, eta ZASTekin izan dugun hartu-emanari esker, konponbidea eman diogu ikastolan ikusten genuen arazoari*. Aurten 3 talde arituko dira ikastolaren izenean.

### Egituraketa

Garai batean izan zen bezala, neskekohitura hartu dute saskibaloian aritzeko. *Ia urtero talde bat osatzeko adina neska etortzen dira*, adierazi du Ainhoa Fernandezek.

Fernandez, 4 urtez entrenatzaile lanetan aritu eta gero, bestelako lanak egiten ari da orain. *ZASTen barruan gauden arren, gauza askotarako modu independentean jarduten gara Orion. ZASTek egitura jartzen digu eta kudeaketan lagundu, baina gainontzeko lana oriotarron artean egiten dugu. Gainera, horretarako zuzendaritza-talde moduko bat osatu dugu aurten* esan du Fernandezek.

Aurten, lehenengoz, juniorren taldea arituko da Orioren izenean. Orain arte ikastolaren izenean jardun direnak Ursa-Orio izena eramango dute hemendik aurrera. Oreka ekonomikoa ziurta-

tzeko babesle bila aritu dira; Ursa galdara enpresa izango da talde horren babeslea.

2007an talde bakarra bazegoen ere, sei dira 2012an. Herriko neska mutilen 4 taldeez gain, Zarautzen izenean bi talde ari dira Orion. *Herriko nesken saskibaloitaldeak mailak gora egin du nabarmen, eta, horren ondorioz, errendimenduko taldeetan oriotarren presentzia asko igo da. Hori dela eta, Euskal Ligako kadete nesken taldeak eta junior nesken errendimenduko taldeak asteen saio bat eta partidak Orion jokatzeko erabaki genuen. Kontua ez da oriotarrak Zarautzen edo zarauztarrak Orion jokatzeko. Taldean bi herrietako jokalaria asko badaude entrenamendu eta partidak bi herrietan egiten ditugu, gaineratu du Dan Lertxundi ZASTeko arduradunak.*

Horrez gain, saskibaloieskola ere martxan jarri dute aurten ZASTekoek Orion.

### Hiru jokalaria Gipuzkoako selekzioan

Azaroaren 1etik 4ra Amurrioren eta Bilbon jokatu zuten Lurraldeko txapelketan Orioko taldeetan jarduten diren hiru jokalaria aritu dira lehiatzen, Euskal Ligan aritzen direnak; tartean Sara Iparragirre oriotarra. Iparragirrek gainera, bere taldekidearekin, Mikele Mannionekin, batera irabazi du Euskadiko txapelketa. Bestalde, Maria Artetxek, aurrekoen taldekideak, infantiletan irabazi du txapelketa. Hiru lan ona egin dute, gainera.

### Seniorrak hirugarren urtez

ZASTen egituratik aparte, senior mutilen ere Orion jokatzeko dituzte partidak. ZASTen egituratik kanpo dago talde hori eta Alustiza Autobusak-Orio du izena. Larunbat arratsaldeetan jokatzeko dituzte etxeko partidak, 16:00etan. Momentuz gauzak nahikoa ongi doazkie: jokatu-tako 6 partidetatik 4 irabazi dituzte eta beste biak galduta, ozta-ozta.

## Urdanetan san Martin eta Altzolan san Roman jaiak ospatuko dituzte

Ostiraletik, azaroaren 9tik, astelehenera bitartean jai giroa izango da nagusi Urdanetan. Hilaren 18rako, berriz, egun bakarreko festa antolatu dute Altzolan, san Romanen aitzakian

Egiazko negua, San Martinetan hasten dela dio esaerak, baina negu giroa egon arren, Urdaneta auzoan hori ez da festarik ez egiteko aitzakia izaten. Alderantziz, azaroaren 4an hasi zituzten Sanmartinak erretiratuen egunarekin eta asteburu honetan jarraituko dute festek.

Ostiral gauean mus-saioa izango da Indamendi elkartearen; ondoren, Zarauzko *Ihes naiz* taldeak kontzertua eskainiko du Ximorren. Saioa bukatuta, tabernak irekita jarraituko du parranda gogoia dutenentzat.

Larunbata ere ekitaldiz beteta etorriko da arratsaldetik goizaldera bitartean. Gorritik umeak goxatuko ditu bere animaliekin. Haur eta helduek txokolate eta bizkotxoekin gozatzeko aukera izango dute gero. Gauean, berriz, betizu jana egingo dute frontoian; afalostean bertsolariak eta trikitilariak arituko dira. Nahikoa ez dutenek Ximorren jarraitu ahal izango dute parranda.

### Idi-demak gustukoen

San Martin eguna, aurten igandea, izan ohi da antolatzaileen esanetan auzora jende gehien joaten den eguna. *Herrikirolak eta idi-demak askoren gustuko dira eta horrek jende ugari erakartzen du auzora, baita afaritara ere. Gainera, auzo txikietako festek herri handietakoen aldean xarma berezia dute, dio antolatzaileen taldeko Maialen Manzidorrek. 9 lagunekoko gazte taldea ibili da aurten festak prestatzen, baina, beti ere, auzoko nagusiagoei gomendioa eskatuz, haiek baitute esperientzia, baita jaietan ere.*

Meza eta palaz binakako pilota partidaren finalen ondoren, harri-jasotzaileak eta aizkolariak arituko dira herri kirolen erakustaldian. Kirolarien nekea arindu eta giroa alaitzeko trikititixa doinuak izango dira, gainera. Idi-deman aurten *Saberriko* idi bakarrak, Izetako idi pareak eta Iñaki Olidenen idi bakarrak egingo dute erakustaldia. Eguna bukatzeko trikitilarietako erromeria izango da berriz.

Asteburu gutzia nahikoa ez, eta astelehenera arte indarrez irauten dutenak, azaroaren 12an, goizean goiz jaikita, baserriz baserri arituko dira oilaskoak bil-



Herri kirolek dakarten jendetza ikusita, harrijasotzaileak izango dira aurten ere. MAIALEN MANZIDOR

tzen Izer eta Alabier trikitilarietako. Gauean, jasotako oilaskoekin, auzo afaria egingo dute Indamendi Elkartearen. Gero, erromeria eta patata-dantza izango dira Ximorren. Gauerdian amaituko dituzte festak traka zatatsuekin.

### San Romanak Altzolan

Azaroaren 18a da san Roman eguna eta urteetako ohiturari jarraituz, Altzola auzoan festa izango da igande horretan. 11:00etan egingo dute meza nagusia eta ondoren, hamaiketakoa. Ostolaza eta Aitzol trikitilarietako erromeria izango da gero 15:00ak arte. Bazkaltzeko tartea hartu ondoren, dantzaldia izango da berriz. Baratzuri zopa eta txokolatea jana eta gauean ere arituko dira trikitilariak 00:00ak arte. Mezatara jende asko joaten dela esan digute antolatzaileek eta jai giroan eguerdira arte egoten direla batez ere, baina urtetik urtera jende gutxiago gerturatzen dela Sanromanetara. Hala ere, joaten direnentzat festarako aitzakiarik ez da faltako Altzolan ere.

### URDANETA

#### Azaroak 9, ostirala

22:30 Mus txapelketa Indamendin.

23:30 *Ihes naiz* taldea Ximorren

#### Azaroak 10, larunbata

16:00 Gorriti eta bere animaliak

Ondoren Txokolate beroa bizkotxoekin

21:00 Betizu jana frontoian

Afalostean Peñagarikano eta Egaña bertsolariak eta Izer eta Alabier trikitilariak

00:00 etatik aurrera Ximor irekita

#### Azaroak 11, igandea

11:00 Meza

12:00 Palaz binakako partidaren finala.

Segidan Herri kirolak: Izeta I, Izeta II,

Izeta III, Izeta IV harrijasotzen eta

Mugertza, Imanol Zaldua eta Bihurri

aizkoran. Laja eta Lutxurdiok alaituta

17:00 Idi-dema

22:30 Erromeria Laja eta Lutxurdiorekin

#### Azaroak 12, astelehena

07:00 Diana eta oilasko biltzea

21:00 Bildutako oilaskoekin auzo afaria

Ondoren Erromeria eta patata dantza



Soltean zein helduan aritzen dira dantzan Aristerrazuko erromerian jai egunetan. KARKARA

## Andatzako Erromeria Elkarteak dirua jasoko du Udaletik 2015era arte

Erromeria bultzatzeko eta auzoko kultur eskaintza mantentzeko diru laguntza emango du Aiako Udalak. Igande eta jai egunetan Aristerrazu plazan dantza eta trikitixa izango da

Urteetako ohiturari jarraituz aurten ere erromeria denboraldia hasia da Andatza auzoan. Urriaren 21ean izan zen lehena, eta hainbat saio egin ondoren, ekainera bitartean igande arratsaldeetan eta jai egunetan trikitixa doinuek eta dantzak hartuko dute Aristerrazu plaza.

Horren harira Aiako Udaleko zinegotzi Arkaitz Iruretagoienak eta Andatzako Erromeria Elkarteak Juan Mari Azkuek hitzarmen berri bat sinatu dute -aurreko legegintzaldian ere diru-laguntza eman zuen Udalak-.

Erromeria giroa urteetan egin duten bezala bultzatzea eta Andatza auzoko kultur eskaintza mantentzea da sinatu duten hitzarmen horren helburua. Akordio horrekin lau urterako konpromisoa hartu dute, hau da, 2015era artekoa eta horren arabera Udalak urtero diru-laguntza emango du, urtean-urtean handiagoa: 2012an 2.600 eurokoa, 2013an 2.800eko, 3.200 eurokoa 2014an eta 2015ean 3.400eko.

### Eskultura puskatuta

Erromeriarik ez denean ere trikitilariak presente egoten dira Aristerrazuko plazan dagoen eskulturaren. Orain, ordea, panderorik ez da, duela pare bat aste panderoa duen besoa hautsita aurkitu baitzuten. Ez da eskultura puskatzen duten lehen aldia. Konpondu bitartean Aristerrazu jatetxean dute gordeta falta den zatia.

### Etena

Ia igandero izaten dira erromeriak, baina noizean behin salbuespenik ere egiten dute, besteak beste, inguruko auzoetan festak direnean. Azaroaren 1ean, jai egunean, trikitixak eta dantzak ez zuten hutsik egin, baina azaroaren 4an eta 11n, Urdaneta auzoko festaketa 18an Altzolako San Romanak direlako etena egingo dute Aristerrazun. Hurrengo erromeria, beraz, azaroaren 25ean izango da: 18:30etik 21:30era eta Laja eta Mikel trikitilariak arituko dira.

## LABUR

### Festak

#### Andatzan auzo eguna

Azaroaren 17an auzo eguna ospatuko dute Andatzan. 11:00etan haur jolasak eta eskulanak izango dira, eta ondoren bazkaria Uhartemuñon. Izena emateko, hilaren 13a baino lehen, elkartera jo edo 635 009 220 zenbakira deitu behar da.

### Kirola

#### Illarretak irabazle Kintopekoetan

Urriaren 31n hasi eta azaroaren 5a arte iraun zuten aurtengo Kintopeko idi probek. Azken egunera arte ez zen erabaki irabazlea. Bazirudien igandean, azaroaren 4an, Iñaki Olidenek semearen, Enaitzen, izenean aurkeztutako idiek egindako marka balekoa izango zela 61 plaza, 7 zinta eta 2,70 metrorekin; baina astelehenean, hilaren 5ean, Patxi Illarretak 62 plaza juxturekin garaipena lortu zuen. Hirugarren Zubiondo jatetxeko parean izan zen, 58 plaza, 7 zinta eta 2,23 metrorekin. Guztira 18 idi pare aritu ziren deman eta horietatik lehenengo aiarra Patxi Arzadun izan zen, 54 plaza, 6 zinta eta 2,58 metro eginda. Illarretarentzat, beraz, aurtengo mantak.

### Kultura

#### Argazki lehiaketa

Elkano eta Urdaneta auzoen inguruko 52 lan aurkeztu dira Aiako VII. Argazki Lehiaketara. 17 lagunek hartu dute parte aurtun, eta, ohiko moduan, behin epaimahaikideek lanak ikusi eta baloratuta, erakusketa jarriko dute jasotako argazki guztiekin azaroaren 18ra bitartean. 2013ko egutegia osatzeko baliatuko ditu Udalak herritarren iritiz egokienak diren argazki horiek.

### Udala

#### Arau aldaketak

Aiako Udalean egindako azken udalbatzarrean, besteak beste, hainbat eremutako arau aldaketak onartu zituzten. Kanposantu inguruan -Altxerriko kobari buruzko proiektua eta kilometro bateko ibilbidea egingo dituzten eremuan- eta eskola berriaren partzelan eragingo dute aldaketek. Bigarren horretan, sotari hirigintza eskubidea handituko diote 1500 m<sup>2</sup>-tik 2700m<sup>2</sup>-ra pasatuz. EAJren aldeko 6 botorekin eta Bilduren kontrako 5ekin onartu zituzten aldaketak. Bestalde, aho batez onartu zuten beste aldaketa batekin Bainten inguruan 700 metro koadroko pabilioi berri bat altxatzeko eskubidea bermatu dute.

## Itxura emateko alferrikako lana



arai honetan nonahi ikusten ditugu, tresnaz baliatuz, hostoak hemendik hara bidaltzen. Bistara txukun gelditzen ez den guztia bistatik kentzen, bakarrik arreta jartzen ari garen bitartean bada ere: errebelde diren hostoak, behar den lekuan jarri diren belar apurrak... Nahi duten lekuan gelditu ez den dena uxatzen dute, haizea hartze-  
ra bidali, eta *magia-potagia* eginez lortu nahi duten irudia ematea erdiesten dute... une batez. Txukundu dituztenek bizkarra eman bezain pronto han baitira berriro ate joka: *Hemen gaude, e? Ez gaituzue hain erraz gaineratik kenduko! Beste alde batera bidaltzearekin ez duzue ezer konponduko!* Bitartean, ingurua belzten duten tresnak jo eta ke ari dira, eta hain

baliotsua omen den gasolioa lau haizetara zabaltzen dute alferrik!

Inoiz asmatu den ariketa zentzugabeena: ahaleginak egiten dituzte arazoa bistatik kentzeko soilik, izugarritzko zarata sortzen dute hori egiten ari direla

***Ez dira arazoari benetako irtenbiderik bilatzen saiatzen, eta, egin dutena saldu nahi digute gure eta gizartearen aldeko lana balitz bezala***

iragartzeko, ez dira arazoari benetako irtenbiderik bilatzen saiatzen, eta egin dutena saldu nahi digute gure eta gizartearen aldeko lana balitz bezala, gure onerako egindakoa, gurekin pentsatuta emandako aurrerapausoa... Garbia ez den haizea alferrik botatzen dute gauzak konpontzen egongo balira bezala.

Gogoia ematen dit garrasika hasteko –haiek baino zarata gehiago eginez–: *Ez gaituzue engainatuko! Ez al zarete konturatzen hil honetan, hain justu ere, politikariak bezala ari zarete! Garbia ez den haize beroa baino ez diguzuela botatzen!*

Pentsatzen hasita... itzul zaitez testuaren hasierara, hostoak ahaztu, eta testua irakurri berriro, politikariak gogoan dituzula.



**Txokoak eta jendea**  
Furgonetan  
paseatzera

Zazpi urte dituen argazkian pozik daude udalekutako umeak Arantxa Aldai begiralearekin. Ezkerretik: Aitziber, Xabi Aldai, Mirari Azpiroz, Maddi, Martxel, Gontzal eta Jakes Aldai, Iñigo Zuloaga, Iban Aldalur, Maren Eizagirre, Miriam Sarasola, Miriam Oteiza, Ane Eizagirre, Julen Oteiza, Eli G. de Txabarri, Iban Orbegozo, Itziar G. de Txabarri eta Andrea Zipitria.



## 16. Esku askotatik pasatua

**O**rtzaikan dago Lertxundi baserria, baina baserri zahar hartatik ez da arrasto txikiren bat baino gelditzen, zaharra bota eta berria egin baitzuten. Kanpoko zein barruko hormei arretaz begiratzuz gero, ikus daiteke kanpoko pareta batean garai bateko baserriaren izkinetako harlanduzko kateak daudela eta barruan Lertxundi zaharra izan zenaren hormetako bat mantentzen dela. Ikusten da bi

isuriko teilatua eta bi pisu zituen eraikina zela. Gaur egungoa baserri modernoa da, harlangaitzezko pareta sendoak eta hiru pisu dituena.

Lertxundi baserriari buruzko lehen datua 1510ekoa da. Orduko dokumentu batean Lertxundi izena agertzen da, baina ez baserriarena bezala, abizen modura baizik. Kontuan izanda, garai bateko abizenak etxe edo baserriarekin lotuta egoten zirela, ez da harritzekoa zeharka bada ere abizenak baserriaren izana adieraztea. Lertxundi abizenaren oinetxe litzateke, beraz. Datu hori horrela interpretatzuz gero, Lertxundi Orioko zaharrenetarikoa litzateke. Baserriaren historia luzea da beraz, baina bere inguruko dokumentaziorik apenas dago.

Hala ere, gauza jakina da Lertxundi garai batean oinetxe izan zela eta sagarrondoak, lurrak, erriberak, basoak eta txara zituela ondasunen artean.

Gaur egungo baserriko jabeak entzun izan du askotan saldu eta erositako baserria dela. Lertxundi Orioko Udalaren esku zegoela, erosi zuenak, Lertxundi-berri etxea eraiki zuen bestearen ondoren, hura oso egoera txarrean zegoelako.

Garai batean ganadua eta porru pila ematen zituen baratze aberatsa zuen Lertxundi baserriak eta gaur egun, behiak dituztenez, baserri lanetan jarraitzen dute, beste lanak ahaztu gabe, baserriak ez baitu nahikoa ematen.

[ ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA: ZEHAZTEN ]

**PERTSIANAK**  
A K O M A Z  
Aluminio, PVC  
Venezianak  
Motorrak...  
Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

**URAITZ**  
*burindegia*  
*burindegia*  
Erdiaia, 3 Tfax: 943 83 18 97

**URANGA**  
burindegia  
Opari, menaje eta erremintak  
fer.uranga@euskalnet.net  
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

tel/fax: 943 89 00 69  
Bokata kalea, 4 20.800 ZARAUZ  
**ORBIDE**  
ITURGINTZA, BEROGINTZA  
GASA, BAINU ERAKUSKETA  
Presupuestak kopiatzeko 5000



Altzibar Berrin 7 logela dituzte, irudian horietako bat. ALTZIBAR BERRI LANDETXEA



Katxiñakoa izatez, Urnieta eta Orio artean joan etorrian ibiltzen da Eli, lan kontuak tarteko. KARKARA



ELIXABETE  
ETXEZARRETA  
“SENDAGAI ONA  
DIRA BASERRI  
ETA LANDA  
INGURUAK”



Badira sei urte bizimodua erabat aldatzea erabaki eta, senarrarekin batera, Urnietara jo zuela Elixabete Etxezarretak **Altzibar Berri landetxea** bere gain hartuta. Aurten, gainera, otsaila bitartean, Euskadiko nekazal-turismo eta landetxeen elkarteko -Nekaturreko- lehendakari izatea tokatu zaio.

**TESTUA: LORE BERASALUZE**  
**ARGAZKIAK: ELIXABETE**  
**ETXEZARRETA ETA KARKARA**

Nekazal-turismoek eskaintzen dituzten balioak eta tratua gustatu, eta lanbidez, eta ondorioz, bizibidez, aldatzea erabaki zuen Elixabete Etxezarretak, Katxiñako alabak, 2006an. Norberarentzako proposa den lanbide egokia aurkitu nahian, zoriz, oportetan izandako esperientzia eder bati esker, etorri zitzaion argialdia Etxezarretari; eta beroaldian, segituan hasi ziren baserri edo nekazal-turismo baten bila senarra eta biak.

**Han eta hemen begiratu ondoren, Urnietan topatu zenuten bila zebiltzatena.** Halaxe da. Jabeek erretiroa hartu behar

zutela-eta, Urnietako Altzibar Berri landetxea salgai zegoela ikusi genuen. Pentsatu eta egin. 2006ko apirilaren leian egin genuen gure.

Gainera, guk kontuan hartu gabeko alderdiak jorratuta zeuden han dagoeneko: esate baterako, astean zehar langileak hartzen zituen etxean, prezio berezia eginda. Aurrekoek utzitako bi langile ditut nik egunero-egunero.


**Nola gogoratzen duzu bizimodu aldaketa?**

Lan mota aldaketa nabaria izan zen. Landetxea irekitzeko erabakia hartu aurretik Donostian lan egiteko eskaintza jaso nuen ordura arte nire nagusiak zirenen partez. Baina han, hiriburuan, goizeko ordu txikiak arte lanean, ez nuen

nire burua ondo ikusten. Ordurako nire lan ohiturak baintuen: 06:00etatik 14:00etara egiten nuen lan, esaterako, eta gorputza horretara jarrita nuen. Aurtorik gabe ibiltzetik nahitaez horretara behartuta nengoke... Eskaintza berria ez zen niretzako.

Horrez gain, Katxiñan ohituta nago ni eta kaleko etxe batean aspertzen naizen horietakoa naiz. *Zu etxera etortzerako ilunduta dago eta bakar-bakarrik, pisu batean, zeregingo dut nik?* galdetzen nion gizonari. Askoz erosoago nago baserrian.

Gizona, aldiz, kalekumea da, baina erotu egiten da animaliak alboan baditu. Zestoan bizi ginenean ere ahuntzak eta abar izan zituen utzitako lursail batean.



Gure etxea besteei irekitzeak gehiago eragin dio senarrari niri baino. Izan ere, ostalaritza jaiotzatik ezagutu dut nik, ohituta nago jendearen joan-etorriekin. Datorrena hartzen dut eta kitto. Baina jardunean-jardunean ohitu egin gara, bai bera eta baita ni ere. Nire burua ezkututzen nuen horietakoa nintzen txikitan eta begira orain; zeinek esango luke!

Baserrian bizi ahal izateko baina, gastuei aurre egiteko aukera bakarria negozioarekin jartzea dela argi izan dugu hasieratik. Baserriaren hipoteka soldatarekin ordaintzea zaila da gero!

**Eta herri aldaketa?**

Kasualitatez, gure etxetik bi kilometrorra beste landetxe bat dago –Montefrio– eta lagun min bat bizi da han; hara ezkonduakoa. Egia esan, niretzako salbazioa izan da. Aurrez ezagutzen genuen elkar eta lehendik ere harreman aparta zena, are eta hobea da orain. Gaur da eguna kafe bat hartu nahi eta haren etxera joaten naizena. Bigarren etxe modukoa dut.

Egunerokoan ere ingurua osatzen joan naiz, ia konturatu gabe.

**Baserriari hartutako moduan eutsi al diozue?**

Hasiera batean ez genuen ezer aldatu. Bezeroekin batera bizi ginen gu hasiera hartan, solairu berean, beste logela batean. Gure sukalde ondotik sartzen ziren guztiak. Baina aldaketak egin genizkion hasi eta bi urtera-edo: besteak beste, ganbaran aprobeztatzeko moduko zuloen bat bazegoela eta hara pasa genituen gure bi logelak. Guztiok etxebizitza berean egonagatik ere, bezeroen eta gure etxeak banatu egin genituen nolabait, bakoitzari bere etxerako sarrera independentea eginez.

Landetxearen jarduna ere ez genuen eten: aurreko jabeek utzi eta hurrengo egunean guk geuk hartu genuen, erre-serbei eutsiz eta egunerokoan bete-betean sartuta.

**Zer moduz doakizue?**

Oso gustura gaude. Loa eta gosaria ematen ditugu gure etxean. Asteburuan pilatzen zait lanik gehiena, baina gizona ere



“Landetxea irekitzeko erabakia hartu aurretik Donostian lan egiteko eskaintza jaso nuen. Baina han, hiriburuan, goizeko ordu txikiak arte lanean, ez nuen nire burua ondo ikusten”

“Baserrian bizi ahal izateko aukera bakarria negozioarekin jartzea dela argi izan dugu hasieratik. Baserriaren hipoteka soldatarekin ordaintzea zaila da”

“Landetxearen jarduna ez genuen eten: aurreko jabeek utzi eta hurrengo egunean guk geuk hartu genuen, erre-serbei eutsiz eta egunerokoan bete-betean sartuta.”

“Oso gustura gaude landetxearekin. Loa eta gosaria ematen ditugu gure etxean. Asteburuan pilatzen zait lanik gehiena, baina gizona ere etxean izaten dut eta bion artean di-da batean prestatzen ditugu logelak eta gainerakoak”

“Bi motako bezeroa izaten dugu orokorrean: mendiaren, naturaren eta lasaitasunaren bila datorrena bat; kokapenarengatik datorrena bestea-hiriburutik gertu gaude, Euskadin dena dago-eta bertatik bertara-. Eskaintzen dugun zuzeneko tratua ere erakartzen ditu bezero asko eta asko”

“ Landetxeko lanetara bakarrik dedikatu nahiko nuke etorkizunean, lurra landuz... ”



etxean izaten dut eta bion artean di-da batean prestatzen ditugu logelak eta gainerakoak.

Horrez gain, Katxiña erretegiara ere etortzen naiz lanera asteburuetan, larunbat eta igandetan. Landetxeko sarre-rak ostiraletan prestatzen ditut eta hortaz, ondo moldatzen naiz biak egiteko. Halere, aitortu behar dut, etxekoa izate-ak badituela abantaila batzuk: lanean beranduxeago hasteko aukera, esaterako. Bi zereginak ondo ezkontzeko, ahal dudanean etortzen naiz Katxiñara, ar-nasestuka batzuetan, ailegatu ezinik. Baina, orokorrean, ez da horrenbestera-ko. Bi eguerdiko kontua bakarrik da-eta.

Badakigu momentu zailak bizitzen ari garela, krisia dela-eta. Gainbehera sumatzen dugu guk ere. 2006ko denboraldiarekin alderatuz, ez dauka inongo zeri-kusirik oraingoak, batez ere, zubiei eta udari erreparatuta.

Baina jendearetik harremanak eta egin dugun inguruak –baratza, animaliak... direla-eta– asebate egiten nau.

**Noiz egin zineten Nekaturreko kide?**

Landetxeko nagusiak ziren haiek Nekaturreko kide ziren gu joaterako. Eutsi egin diogu guk bazkidetzari. Izan ere, garai hartan web orrien erabilera ez zegoen hain zabaldua, eta elkartek bazue-nez, gure landetxea ezagutzera emateko eta zabaltzeko erakusleiho paregabea zen eta da. Horrez gain, sektore berria zen guretzat eta aurrekoen eta inguruko beste batzuen erabakiei jarraitzeko apustua egin genuen, onena izango zela-koan, guk baino eskarmentu handiagoa zuten-eta.

**Eta lehendakari?**

Elkarteko kideek, etxejabeek, osatzen duten batzordea du Nekaturrek. Euskadiko probintzia bakoitzeko jabeetako batzuk osatzen dugu. Gehienez ere lau urte egin ditzake kide bakoitzak han; gero, besteei utzi behar zaie lekua. Hasierako urteetan informazio asko jasotzen du batzarrean sartzen denak eta hori dena digeritzea kosta egiten da. De-noi gertatzen zaigun moduan, batzarre-





atik informazioa bidaltzen eta jasotzen badugu ere, irakurri-irakurri, gutxi egiten dugu, batzarreko dinamikan txertatu arte. Horregatik, lehendakaria aukeratzeko garaian, azken txanpan dagoen batzarkideren bat aukeratu ohi da. Nik laugarren urtea dut oraingoa, eta kargurako egokia nintzela-eta, urtebete honetan lehendakari naiz. Otsailean, ohiko batzarra egiterakoan, utziko dut besteren baten esku.

#### **Lan asko ematen al du lehendakari izateak?**

Ez asko. Nekaturren langileak ditugu eta haiek eramaten dute lan-kargarik handiena. Haiek mugitzen dute Nekatur gehienbat, beti ere batzarrak markatutako bideari jarraituz.

Gainerakoan, bileraren bat edo beste gehiago izaten dut; ez besterik: hitzarmenen bat edo sinatu behar bada, administrazio-batzarren batera joan beharra badago... beti ere libre baldin banago, jakina; lehendakariordea edo joango da, nik ezin badut.

#### **Zer nolako bezeroa erakartzen duzue landetxe eta nekazal-turismoek?**

Denetariko jendea daukagu, baina gaur egun, prezio onaren bila datorren bezeroa nagusitzen dela uste dut. Halere, joesora hori orokorra delakoan nago.

Bi motako bezeroa izaten dugu orokorrean: mendiaren eta naturaren bila datorrena da bat. Lasaitasunak eta aparkatzeko arazorik ez izateak ekartzen ditugurera. Eskaintzen dugun zuzeneko tratuak ere erakartzen ditu bezero asko eta asko. Azken batean, erreserba egiteko, gosaria emateko eta arazoren bat konpontzeko laguntza eman eta arreta eskaintzen dizun pertsona berbera da gure etxeetan. Gure etxe propiora etorriko balira bezala hartzen ditugu.

Bestalde, kokapenarengatik ere etortzen zaigu jendea. Hiriburutik gertu gaude guztiok, Euskadin distantzia handirik ez dago-eta. Hiri handiak eta kostaldea ikusteko eta barruko beste hainbat herri eta parajez gozatzeko aukera ona garelako irizita etortzen dira. Bien ar-

## APUSTU BERRIAK AURRERAKO

**L**andu beharreko lau esparru zehaztu ditu Nekaturek hurbileko etorkizunera begira:

Nazioartekoa: atzeriko bezeroa erakarri nahi dute. Horretarako, feriatan, batez ere Frantzian, izango dira elkartekoak, merkatu berriak ustiatu nahian. Aurrekari gisa, beren gisako zerbitzuak eskaintzen dituzten Italiako etxe-jabeekin internetko loturak konpartitu dituzte, azkenean bezero mota bera dutelako.

Enpresa: Alde batetik, eskaintza be-rezi edo bonuak pizgarri moduan saltzeko aukera izan nahi dute. Bestalde, beren bilerak landetxe/nekazalturismoetan egin ahal izateko gelak egokitzeko apustua egin dute Nekaturetik. Bide horretan, CRM (*Customer relationship management*) bat ere prestatu du elkarrekin, datu-giak, mailingak... lantzeko.

Soziala: *animaliek, soroak eta naturak lagundutako terapiaren* baitako bi esperientzia jarri dituzte martxan dagoeneko, marjinazio soziala pairatzen dutenei nolabaiteko laguntza eskainiz. Baztertuta dauden gazteek hartu dute parte abian jarri dituzten bi aurreneko proiektuetan: astean bitan nekazalturismo batetara joaten dira, baserriko lanak egin eta han elkarlanean bizitzera. Laster, hirugarren talde bat hartuko du beste nekazalturismo batek; oraingoa, tratutxarrak jasan dituzten emakumeak izango dira terapiaren onuradunak. Sarea osatzen joan nahi dute, baserri-inguruak onura handia ekar diezaiekeela uste dutelako.

Unibertsitateko ikerketa batez lagunduta doa terapia eta azterketak utzitako emaitzen arabera, askoz ere garapen hobea izan dute proiektuan parte hartu dutenek.

Bide batez, asteburu eta astegun-aren arteko erreserba-balantza orekatuko dute etxe-jabeek.

Sentimendua: euskal etxeekin harremanetan jarri eta beren produktua atzerrira saldu nahi dute; euskal kulturaren interesa duten bezero posibleak gerturatu edota erakarri nahi dituzte horrela.



tean gaude gu askotan eta aurrez aipatutako ezaugarri bereziak ditugu hotel eta hostalekin alderatuta.

#### **Santu Guztien zubia pasa berri dugu. Zer moduzko datuak jaso dituzue?**

Euskadiri dagokion betetze maila %22koa izan da. Datu baxua da. Iaz dagoeneko antzeman zen joera -%28a izan zen aurreko urtean - eta aurtengoa nolakoa izango zen aurreikusita geneukan. Donostia, Deba, Bidasoa... aldean eta kostan bezero gehiago izaten da; Tolosa aldean behera egiten dute datuek; eta Goierrin, berriz, gora.

Orain Behobia-Donostiako asteburua dator. Ekainetik beteta daukat nik etxea, eta ingurukoak ere egoera berean daude. Oraindik ere lasterkariak deika aritzen zaizkigu, leku bila, eta ez dakigu nora bidali. Ikaragarria da Behobia-Donostia lasterketarena.

#### **Zer eskaintzen duzue zuek beste ostalaritza-zerbitzuen aurrean?**

Batez ere lasaitasuna. Momentu honetan, zenbait etxetan eskaintza berriak lantzen hasi gara, oreinak bisitatzeko aukera emanez. Turismo aktiboa baino zerbait gehiago bizi nahi du gaur egungo bisitariak. Etxe jabeak horretara animatu nahian gabiltza, baina kontuan hartu behar da etxe txikiak garelako, langile gutxiak eta dena aurrera eramatea kosta egiten zaigu.

Horrez gain, nekazal-turismo eta landetxeak ugaritu egin dira azken urteotan; eskaintza lehen baino handiagoa da eta eskaria bera.

#### **Orioko eta Aiako landaturismo eta nekazal-turismoak nola ikusten dituzu?**

Orokorrean oso ondo lan egiten den ingurua dela uste dut. Jaitsiera nabariturik zuten baina turismoari begira, zona pribilegiatua dela uste dut.

#### **Zer daukazu egiteko sektore honetan?**

Nire etxean esperientzia asko daukat oraindik probatzeko. Besteak beste, landa eremuan ez dut ezer egiten, denbora aldetik oso mugatuta nagoelako. Landetxe lanetara bakarrik dedikatu nahiko nuke, lurra landuz...

# Egunpasan

**T**gandea. Goizeko zortziak. Herriko Plaza. Hotza. Euria. Etxe zuloan geratzeko eguna egin arren, –batzuk egin zuten bezala– han abiatu ginen herriko hamar gazte tren geltoki aldera. Adin eta koadrila desberdinekoak ia denak. Gaztetxean sortutako ideia bati hasiera emateko prest. Baten batek gu ikustean gaupasa eginda geundela pentsatu arren, behin-goagatik ez zen horrela. Eguna pasatze-za gindoazen, Azpeitia-Zestoa aldera, Erlora, hain juxtu ere.

Bederatziak aldera iritsi ginen lehen helmugara. Asko kostata iritsi ere. Eta ez trafiko arazoengatik, garraio publikoak duen prezioagatik baizik. Hobe lukete agintariak diru publikoa trenbide berri batean xahutu ordez, lehen dugunari hobekuntzak egiten gastatzea, iraunkortasunaren eta herritarron mesedetan. Baina tira, nahiago dut poltsikoan zuloak izatea ozono geruzan baino. Behintzat bigarren helmugarako ez zen dirurik behar eta gaitzerdi.

Hamabiak izango ziren Erloko punta zurituta lehen aldiz ikusi genuenean. Ordurako Inigok aste osorako ekarri zuen hamaiketakoari egina genion gorazarrea.

**Bederatziak aldera iritsi ginen lehen helmugara. Asko kostata iritsi ere. Ez trafiko arazoengatik, garraio publikoak duen prezioagatik baizik. Hobe lukete agintariak diru publikoa trenbide berri batean xahutu ordez lehen dugunari hobekuntzak egiten gastatzea, iraunkortasunaren eta herritarron mesedetan.**



Azken txanpa egin eta hamabiak eta erdiak zirenean iritsi ginen tontorrera. Batzuei garraioa adina kostatu arren, abiatu ginen denok ailegatu ginen gailurrera. Han tronpetaren doinuen la-

guntzaz, profesional onenen moduan argakia atera ondoren, bordara jaitsi ginen indarberritzera. Indarrak hartu ostean *oinarrizko kanpamendura* jo genuen, Azpeitiko frontoi txikira, me-

rezi genuen zerbeza edatera. Edan, bazkaldu, esku-pilotan saiotoxo bat egin eta konturatzeko bueltan ginen. Primeran pasa genuen sentsazioarekin iritsi ginen herrira. Parranda eta teknologia berriez aparte gure barruak betetzeko gauzak badaudela konturatu ginen. Gainera, eskurtsioan izan ginen denok, ia ezer kontsumitu gabe eta osasunari mesede egitearen sariarekin etxeratu ginen.

Baina lasai, ez kezkatu inbidiatan bazaude! Hurrengorako gero eta gutxiago falta baita. Laster arte! Pagoetara arte!

**ASADOR XIXARIO**  
Eusko Gudariaren Kalea, 2  
Tel. 943 830 019 - ORIO

**XABIER URRETABIZKAIA**

- Instalazio elektrikoak
- TDT antenak
- Atezain automatikoak

60 urte zerbitzua ematen

**943 83 17 74**

Arrantzale, 31 20810 ORIO

**Sagasti LEIHOAK**

**ROBERTO SAGASTI**  
Tf / fax: 943 13 00 77  
sagastileihoak@telefonica.net  
Arrantzale kalea, 65  
20810 Orio (Gipuzkoa)

**TAILER MEKANIKOA MANTEROLA S/L**  
TRORROKAK - BALBULAK

Santiago auzoa - 18 postakubua  
Tel. 943 830 743  
Fax. 943 134 634  
E-mail: [tmmanterola@euskalnet.net](mailto:tmmanterola@euskalnet.net)  
20 810 ORIO - GIPUZKOA

**TMM** **AENOR** **ISO 9002**

Esferako balbula  
AENOR kalitate ziurtagiriduna

Santi Barranco aseguru agentea

Arizaga 2, 2. ezkerria ORIO

Tf.: 618 581 398 - 659 218 221 e-posta: [sbarranco@segurosbilbao.com](mailto:sbarranco@segurosbilbao.com)

**SEGUROS BILBAO** Grupo CATALANA OCCIDENTE

FISIOTERAPIA Garikoitz Aristegi eta Natalia Wereszen  
NUTRIZIONISTA Garbiñe Aizpuru

**sinergia** Investigacion fisioterapia

ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 - 685 71 85 95

**SARASUA ERRETEGIA**

**Plater bereziak:**  
-Arrain zopa  
-Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 **ORIO** Tel: 943 83 00 05 / 943 13 25 32

# Hain apreziatua den bizitza

**B**izitza ezkor sumatzen dut. Kalerera atera eta jendearen tristurak tristetu egiten nau. Egunkaria zabaldu eta titularrak irakurrita albisteak irakurtzeko gogo barik geratzen naiz. *Ez dira garai onak*, hori da azkenaldian nire belarriek gehien entzuten duten esaldia. Ados, ez dira izango, baina esateak ezer gutxi laguntzen du. Beldurra ere nabaritzen da, beldurra etorriko denari, ezagutzen ez dugun horri. Baikorra naiz eta betidanik pentsatu izan dut hori norberaren hautua dela. Jaiotzean bakoitzak erabakitzen du nolako begiekin ikusi mundua. Bizitza ez da erraza, are gehiago, bizitza zenbaitetan oso gogorra da; baina horregatik ezin gara negarrez eta tristurak gaitzitzen egon. Azken bi urteetan sentimendu asko elkarbizitzan egon dira nire barnean. Amorrua izan da gehien gailendu dena, baina aspaldi konturatu nintzen amorruek ez zekarrela ezer onik. Haseerre egoteak ez zuela laguntzen. Horregatik, gauza guztien gainetik, bizitza estimatzen ikasi dut. Momentu txiki horiek ahaztezin egiten, eta, ahal den heinean, nire ingurukoei egunero poztasun pixka bat ematen. Asko lasaitzen

nau familiarekin egoteak, mutil laguna berrakartzeak, lagun minekin sekretuak partekatzekoak. Gustatzen zaizkit udako egun luzeak, udazkenean artilezko jertseak janztea, laneko bilerak kaotikoak, ebakia kafe gutxiarekin hartzea eta hondartzan oinutsik ibiltzea. Bakoitzak bakarka entzunez gero, zentzu gabeko gauzak dira, baina, guztiak elkartzuta, osotasun batean ulertuta, nire bizitza da. Hortik harago, bizitza askotan ez da batek nahiko lukeen bezalakoa. Momentu txarrak badaude, eta horietan ikasten da gehien. Norberarentzat garrantzitsua den hori bereizten duzula.

Ospitaleko *salmoi* kolorezko logela horietan sumatzen den umiltasuna eta bizitzeko gogoak, edonoren bizitza perspektiba aldatzen du. Ordura arte izan zenitzakeen balio guztiak hankaz gora jarri eta zure begirada beste aldera begira jartzen du. Uste dut, guztiok egon beharko ginatekeela noizbait egun batzuk ospitalean. Izugarria da egoera gogorrenetan dauden pertsonak baikorrak direla ikustea, ezkortasunari tokirik utzi gabe, edo, hobeto esanda, bizkarra emanda. Izugarria da sentitzea, bizitzea obsesio bilakatu daitekeela. Bizitzearekin amets egitea bezalakorik ez dago, baina halako ametsak ez ditugu izaten dena ondo dagoenean. Arnasa konturatu gabe hartzen dugunean, zaila da horri so egitea. Arnasa hartzeko esfortzua egin behar duzunean, arnas bakoitzaren atzean dagoen esfortzua ikusten duzu. Hori guztia gure begi aurrean dugu egunero, baina halakorik ez baduzu gertu ikusi, zaila da baloratzea. Amak beti esan izan dit bizitza polita dela, eta goizero nire buruari hori esaten esnatzen naiz. Egoera zailan dagoenak hori esaten badu nola erantzun behar zaio? Barre txiki batekin, baietz esaten.

Zera esan nahi dut. Denok ditugu arazoak, momentu ez hain onak eta beldurrak. Denok sentitu izan gara noizbait noraezean eta galduta, baina hemen zerbaitetarako gaude. Ez egunak besterik gabe pasatzen ikusteko. Bizitzeko gaude. Amak erakutsi zizkidan bizitzeko gogoa eta ilusioa. Amari esker naiz naizena.

**Arnasa konturatu gabe hartzen dugunean, zaila da horri so egitea. Arnasa hartzeko esfortzua egin behar duzunean, arnas bakoitzaren atzean dagoen esfortzua ikusten duzu. Hori guztia gure begi aurrean dugu egunero, baina halakorik ez baduzu gertu ikusi, zaila da baloratzea**

**Nire honetan**  
Rikardo Uzkudun

## Udako egun batez

**U**dako egun batez, talde berria KARKARARI errepasso bat ematen ari ginen garaian, egunkariari pusketa bat moztu nion. Erreportaje bateko entresaka bat zen, inbertitzaile baten baieztapen bat. Warren Buffett zuen izena, eta munduko hirugarren pertsonarik dirudunena zela zihoen izenaren azpiko letra txikian.

Kontua da esandakoak baino atentzioa handiago eman zidala berak esan izanak, baita ni ados egon izanak ere. *Merkatuak bakoitza bere lekuan jartzen du* esan zezakeen, baina ez, ez nintzateke ados egongo; *Zaran egiten ditut erosketak, baina ez naiz Amancio beldur... espainiarra da* beharbada, baina ez litzateke ona bere inbertsioetarako; *Orioko Arraun Elkartearen inbertituko dut* tumatxa! Ez da, ordea, AEBtara artzain joandako oriotarren semea.

Eta nik ez dakit zergatik, baina kristoren biharamuna nuen arren -igandetan irakurtzen dut egunkaria-, entresaka irakurri orduko zerbaitek klik egin zidan: *Komunitate sentipen handia duten hirietan, ez dago herri aldizkaria baino instituzio garrantzitsuagorik*. Esaldiaren lehenengo parteak badu Oriok, bigarren parteak betetzea tokatzen zaigu KARKARAZALEOI. Momentuz, bigarren gaude rankingean... baina lasai, *Cluba ezta eta for ever!*

Sukalde eta bainuen erreformak

**XANTI MUJIKA**

**Igeltseritza**

699 46 76 21  
943 13 10 37

**2GURPIL**

Baxoalde 2 - 3 - 20810 Orrio (Gipuzkoa)

943 835 980 www.2gurpil.com bigurpil@hotmail.com

# KAXAIO

PLADURRA ETA IGETLSUA

Konponketa eta berrikuntza lanak pladurra eta igeltsuarekin

4josemaria@gmail.com    ORIO    ☎ 656 777 574

# azkue

karrozeria

Ubegun industrialdea, 7    20809 Aia-Orio

Tf/fax: 943 83 51 86    Carroceriasazkue@hotmail.com

Faroeko bakailaoa daukagu

## ITSAS MENDI

gutzizak

Eusko Gudari, 5    Tel. 943 24 87 74    Orio

# Katu MORIA

ORIO

ESTROPALARIZ, 10  
20810 ORIO  
tel. 943 11 66 99

Larrialdia: 605 67 64 85

# ITZALA

kartelan jokatzeko proposa

tel. 943 83 12 59

# LORETXU JATEKIA

Eusko Gudari, 18    Tel: 943 83 00 07

# IGLESIAS SARRILAGILEAK

24 ORDUA ZERBITZUA

Javier Iglesias Fernández  
637 723 308  
iglesiascerraajeros@yahoo.es  
20810 ORIO

- ATEAK IREKITZEN DITUZU
- SARRAILA-XILINDRO ALDAKETAK
- ATEAK IKTEKO MALGUEN ALDAKETA
- KOMUNITATEBENTZAKO ZERBITZUA

# INDO

Garraio frigorifikoa NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

Carmen eta Txomin ARRANDEGIAR

943 83 05 37 / 943 83 27 47

# Dorronsoro Denda

1963tik zure ondoan

## BETIKO DENDA

el 943 83 09 37

# Goizeko KAFETEGIA

☎ 943 83 28 55

Aita Lerbundi, 33 beheak - ORIO  
Autobus parada ondoan

# Galerna I

Igo zaituz haize berrietara!

943890416-677149934  
galerna1orio@hotmail.com

Aiako eta Orioko berri AZKAR eta ARIN

www.karkara.com

# azkue

Tf: 943 13 04 38

elkaritegia

# ANTILLA

jatekidea

Morlari Kalea, 2 - Tel. 943 83 21 00

# Inkesta

## Gobernu berriari begira

*EAEko hauteskunde autonomikoak pasatu eta gobernu berriak nolako aldaketak ekarriko dituen eta beraiek zer eskatzen dioten galdetu diegu oriotarrei.*

### “Industriari laguntzea eskatuko nioke gobernuari”

**U**ste dut aldaketa benetan handiak izango direla lehen geratuta egon baitira gauza guztiak. Beraz, orain, indar berria emango zaie gauzei, industria geldituta dagoela ikusita.

### “Nahi nuke koalizio nazionalista indartsua egotea”

**G**obernu berria positiboagoa izango dela iruditzen zait. Azken hiru urte hauek oso gogorrak izan dira eta gobernuan egon direnei agintaldi guztian zehar igarri zaie nondik nora

### “Berdin jarraituko dugu maila sozial eta ekonomikoan”

**L**ehenago ezertan aldaketarik egon bazen hizkuntza politikan izan zitezkeen eta ez da horren sakona izan, ez dute haiek nahiko luketen aldaketa hori guztia eman, beharbada ez di-

### “Gobernuak herriari galdetu behar dio zer nahi duen”

**G**auza bat da nik zein aldaketa aurreikusten ditudan eta bestea nik zer nahi nukeen, erabat ezberdinak dira. EAJ denboraldi handian egon zen gobernuan eta PSOEk tokia hartu

Lehen ere izan ditugu horrelako aukerak, behar bezala landu izan dira, baita aurrera atera ere. Lehen ere ikusi dugu nola industria erabat geldituta egon den eta garai batzuetan erabaki berri batzuk hartuta erabaki horiek gure industria guztiz berritu dute. Nik uste dut orain horren beharra dagoela eta hori ikusiko dugula.

Gobernu berriari, hain zuzen ere, hori eskatuko nioke: industriari laguntzea. Izan ere, industriari lagunduz gero, in-

ari ziren. Baina, era berean, denoi ondo etorri zaigu PSOE eta PPren arteko koalizio arraro horren baitan zer zegoen jakiteko.

Beraz, orain, bada garaia gurea zaintzeko –hemengoa izan ez arren bertako sentitzen bainaiz–, eta behar dugun horren guztiaren alde lan egiteko: besteak beste, une honetan lanpostuak sortzeko eta gehienbat politikarien orain arteko jarduera egokirik ezak sortu duen krisia gainditzeko.

relako ausartu. Ez zait iruditzen oraingoak lehengo EAJkoari gehiago erantsiko dionik. Egon liteke nazio izaeraren eta estatus politikoaren inguruko eztabaidan nolabaiteko hasiera, ez baita oso urrutira joango, oraindik ere ez dutelako definitu beraiek zer nahi duten. Maila sozial eta ekonomikoan, berdin jarraituko dugula uste dut.

Nik, gobernuari zer bait eskatzekotan, esango nioke ez dadila izan egoera soziala eta ekonomikoa aitzakia egoera nazio-

zuen garaian, iruditzen zait ondo etorri zitzaiela, pixka-pixka bat merezi baitzuten horrenbeste urte patxadan egin ondoren. Baina orain gogoa eta fedea dauzkatzat zer bait egingo dutela.

Gobernu berriari badugu zer eskatua eta nagusiki honako behar izanak ditugula iruditzen zait: lehenengo, nondik datozen argi badakigun murrizketa horiei aurre egitea; bigarrenik, lana, ez niretzako gazteentzat baizik, gazte asko baitago lanik gabe; eta hirugarrenik, ni

dustriari lagunduko dio jendeari, lana emanaz. Gero horrek bultzatuko duela denontzako askoz etorkizun hobea. Orain dela gutxi hitzaldi batean izan nintzen eta hizlariak esan zuen gaur egungo egoera *timo* bat dela, ez dela berezkoa, probokatua baizik. Beraz, ahalegin guztia egin behar dugu probokazio horri buelta emateko eta hori guztia uste dut posible dela.

**Fernando Aranbarri**

Horren harira gobernu berriari zintzotasuna eskatuko nioke eta politikan praktika egokiak izatea gu ziprztindu gabe, orain hori gertatzen ari da-eta. Eskatuko nuke baita ere politikan onenak egotea, ez erdipurdikoak. Orain, espero dugu, EAJ nolabait saneatuko zela, eta nahi nuke koalizio nazionalista indartsu eta koherentea egotea Euskal Herriaren onerako lan egingo duena.

**Alicia Figueroa**

nalari ez erantzuteko. Izan ere, egoera nazionalaren erantzunak ekarriko du egoera sozialaren eta ekonomikoaren aldaketa. Eskatuko nioke baita ere gizarte egoera aldatzea, krisi egoeratik ateratzea; planteatzea zein dagoen benetan gaizki, ez baikaude alperrik eta zer bait gaizki egin dugulako gaude hemen; eta berriz ez egitea edo gutxienez egiten ari direnari garaipena ez ematea.

**Egoitz Eizagirre**

erretiratu naizen aldetik, guri pentsiorik ez kentzea.

Horrez gain, Euskal Herriari galdetu behar lioke herriak zer nahi duen, ez baita egin behar politikariek nahi dutena, herriak nahi duena baizik. Herriak aukeratu arren nahi duen hori guztia ere ez du lortuko, zaila baita, baina gutxienez gobernuak eta herriak harremana, elkartruketa izan behar dute.

**Koro Zaldúa**

# Leteren sakontasuna Sarasuaren ahotsean

## Kritika Leterekin kantuberbetan

Ahotsa eta gitarra, Jon Sarasua  
Pianoa, Aitor Ziardegi.

Bertso astean Jon Sarasuaren emanaldia. Xabier Lete hil ondoren barruak hala eskatuta prestatutakoa, Leteren kantu eta poesiaz osatua. Haurtzaroan Leteren gitarra eta ahotsa; gaztaroan erantzuteko gogoia; helduaroan espiritualitateari arreta; eta azken urteetan gertukoa. Sarasuak entzuleok horren gutxiaren parte egin gintuen.

Emanaldi goxo eta xumea. Kontatu zizkigun Leteren kantagintzan nabarmendu ziren aldaketak, sentimenduak, sinesmenak, inguruak, adinak... bizitzak bere sormenean izandako eragina.

Asmatu zuen aukeraketan inkonformismoa, errebelia, ironia edo sakontasuna islatuz, baina emankizuna sakonean labur egin nahi eta ale eder asko kanpoan utzi behar. *Izarren hautsa; Giza abera* - Sarasuaren hitzetan euskaraz inoiz egin den kantu gordinetakoa-; *Negu hurbila* - Laboaren doinu-; *Nafarroa arragoa* - Sarasuak umetan, Nafarroan, entzun eta zerbait utzi ziona, oraindik oroitzen baitu-; *Lore bat zauri bat* - edozein hunkitzeiko tonuan-; Lizardiri jarriak - Vivaldiren *Negua* pianoan-; *Habanera* - mundu berri bat



Gitarra eta pianoa lagun aritu zen Sarasuak Leteren omenez. KARKARA

amestea egitea baino errazagoa dela esanez-; *Heriotzaren begiak* - bere buruaz beste egin dutenen oroigarri-; eta bidean utzi ditudanak.

Une batzuetan Lete bera kantari ari zela iruditu zitzaidan. Artista euskaldun handiaren aitortpena egiteaz gain, beti gustura entzuten ditugun kantuekin gozatu genuen. *Xalbadorren heriotze-*

*an* kantura iritsita kantuan hasi eta oso hunkigarria izan zen niretzat une hura.

Bukatzeke *Ni naiz, Ni naiz erreka zikinen iturri garbiak aurkitu nahi dituen poeta tris-tea...* Errekek bezala gugan arrastoa utzi zuena eta Sarasuari ez ezik Leteri ere txalo egiteko baliatu genuena.

[ ROSI LAZKANO ]

**Ikasleak idazle**  
Aitor Etxeberria

## Atez ateko zabor bilketa

Denok entzun dugu atez ateko zabor bilketari edo atez ateko bilketari buruz eta denok dugu ari buruzko iritzi jakin bat; ni (AAB-ren) alde nago.

Alde batetik, sistema hau erabiliz, ez direlako osasunerako kaltegarriak diren zabortegiak erabiltzen. Gainera, proiektu berri honek lanpostu berriak sortuko ditu

herrian. Beste alde

batetik, zabortegiak kale-tik kendu eta espazioa irabaziko litzateke, nahiz

eta egia den posteak erabili beharko liratekeela eta gainera zaborraren kiratsa kaleetatik zabalduko litzatekeela. Egia da, desabantaila batzuk ere badituela, adibidez, sistema honekin zaborraren %100 ez dela birziklatzen, hondakinen %20 zabortegietara baitoa. Ondorioz, hondakin horiekin ere beste zerbait egin beharko litzateke.

Abantailak eta desabantailak aztertu ondoren esan genezake atez ateko zabor bilketa etorkizun hobe baten alde egitea izango litzatekeela.

**Proiektu berri  
honek lanpostu  
berriak sortuko  
ditu herrian**

**agirresarobe**  
PROIEKTUAK, OBRAK ETA ERREFORMAK

OBRA BERRIEN PROIEKTUAK |  
ETXE ETA LOKALEN ERREFORMAK |  
FATXADEN ERABERRITZEAK |  
IBOGAILUEN PROIEKTUAK |  
GREMIO KOORDINAKUNTZA |  
INFORMEAK, OBRA LEGALIZAZIOAK, ... |

ITURRIBIDE 8, 5. BULEGOA, ZARAUTZ  
BORJA AGIRRESAROBÉ, ARKITEKTOA 635 731722

**ARKAITZ**  
Taberna

Pintxoak,  
plater konbinatuak  
eta ogitarleko mundialak

ABESLANI KALEA, 4 TEL.: 943 83 16 57

## » HANDIKETA HEMENDIK



Aspaldiko gazta errezetak orduko hartan bezala egiten saiatu ginen, baina merkatuak eskatzen duenera egokituz joan gara geure erara moldatzen.”

Ramon Lizeaga, gaztagilea. Urola Kostako Hitza, 2012-10-18.

“Deigarria egin zait, gu kostaldekoak izanda, ezagutzen ez genuen bizimodu batekin aurkitu naizelako. Gure gertuko jendeak nola egiten duen lan erakutsi beharrekoa da”.

Ibon Gaztañazpi, kazetaria, Urola Kostako Hitza, 2012-10-23.

## » OSPAKIZUNA



## Odol emaileei zorionak

Odol Emaileen Elkarteak Oria beheko odolemaileak omendu zituen urriaren 28an Anoetan. Izaskungo ermitan meza izan ostean, sariak banatu zituzten eta bazkaria izan zen gero. Ekitaldian 6 oriotarrentzat diplomak izan ziren odola 25 aldiz emateagatik. Alaitz Roteta, M. Jesus Alunda, Jaione Solaberrieta, M. Eugenia Atxega, Joakin Illarramendi eta Migel Berasaluzeri esker ona odol beharrari erantzuteagatik.

## » ZORITXARRAK!

## KZ guneko zerbitzuari

**K**Z guneko zerbitzua hanka-motz dabil azkenaldian Orion.

Kultur Etxean bi gela dituzte, Udalak utzita, bat nabigatzeko eta bestea ikastaro eta azterketetarako.

Ekainean ikastaroak egiteari utzi zieten hainbat teknologia arazoren aitzakian eta IT txartela lortzeko azterketarik ere ez dute egin.

Bestalde, ordura arte, egunero dinamizatzaile bat izaten zen KZ guneko arduraduna. Orain, ordea, astean behin baino ez da egoten.

Jendea sarri ibiltzen da Kultur Etxean gora eta behera galdezka nola inprimatu dezaketen, ikastaroak eta azterketak noiz diren... Laster egokituko ote dute zerbitzua oriotarren beharretara?

uranga  
autozerbitzua

Aliprox

Bisko Gudari kalea 13-15  
ORIO  
943 83 38 75

Orioko  
Herri  
Ikastola

Guraso Kooperatiba  
ABESLARI KALEA, 8  
TEL: 943 83 47 04  
FAX: 943 13 09 38  
orio@ikastola.net  
www.oriokoikastola.net

Zaragueta  
Herri Eskola Orio

telefonoa: 943 89 40 52  
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

Allianz

Marigre Zaldúa  
aseguru agentea

Ibai Ondo, 10 behe-oina  
telefonoa: 943 13 47 60  
faxa: 943 83 57 52  
e-maila: zaldua.delacruz.pa@allianz.es

Bidal! ezazu zure albistea!

ZUZENEAN!!!

karkara.com

# Izoztegi baserria ur azpian, 1954ko uholdea (eta II)

## Oroimenaren kutxa

**U**holdearen bihar-munean, eguerdi partean, Izoztegi-ko aita, morroia eta seme bat urak azpian hartutako baserrira itzuli ziren Ilunbetik, panorama ikustera. Basoan lotutako animaliak bizirik ziren. Goiko logelari oheari lotutako oilandak, itota denak, bi izan ezik: lotura hautsi eta ohe gainera igo zirenak. Komunean geratutako txerria, bizirik, aurreko hankak arraskaren gainean jartzen asmatu zuelako, lepoa pixka bat altxatzeko. Etxe ondoko txabolan sartutako alak, ura sabairaino igo zenean, hautsi egin zuen txabola-ko teilatua eta, handik aterata, urak eraman zuen erriogan behera. Beste txabola batean upelak zeuzkaten, bukoiak, seiehun bat litro sagardorekin, sei bat, haletako bat hutsik. Hura, hutsik zegoena, urak gora altxatu eta beste txabolan alak egindako gauza bera egin zuen sagardotegiaren txabolan: sabaia puskatu eta zuloa egin. Handik atera ziren kupela guztiak. Batere gabe geratu ziren. Artoa, babarruna eta baratzean zeuzkaten gainontzeko ortuari guztiak ere alferrik galduta zeuden. Urak 10 meta belar eta lau meta garo ere eraman zituen berekin, zeuzkaten guztiak. Horixe topatu zuten aizpuruatarrek Izoztegin..



Alan, euripean, 1954ko uholdean bezala. IÑAKI ITURAIN

Izoztegi izena baserriri izoztzak eman zion, ia negu osoan alde egiten ez zuelako. Izotza batetik, eta ura bestetik, ez zuten bizimodu errazik paraje hartan. Kalera, edozertara etortzeko ere, alan igaro behar izaten zuten errioa. Halaxe pasatzen zituen aitik haurrak, Saikolako eskolara joateko. Huraxe zen handik ateratzeko modu bakarra,

alan; edo oinez, kilometro asko eginda, Txokoaldera.

Uholde izugarri hartatik urte gutxitara, baserria utzi eta errioa betiko igaro zuten, Intxaurretara. Izoztegi, Itzao bezala, erriorean Aiako aldean dauden bi baserriak, gizakiak baztertuta daude orain, izoztuta.

[ IÑAKI ITURAIN ]

## » JAIOTAKOAK

- Unax Sanchez Castro, Orion urriaren 23an.
- Ander Paredes del Rosario, Orion, urriaren 20an.

## » EZKONDUTAKOAK

- Patxi Romo Barrenetxea eta Ainhoa Alberdi Etxeberria, Orion, urriaren 20an.

## » HILDAKOAK

- Frantziska Atorrasagasti Genova, Orion, azaroaren 4an. 90 urte.
- Agustina Arruti Lertxundi, Aian, urriaren 31n. 84 urte.

.....  
 .. Eskela edo ..  
 .. urteurreneko ..  
 .. gogoangarria ..  
 .. KARKARAN jarri nahi ..  
 .. baduzu, deitu gure ..  
 .. telefonora: ..  
 .. **943 83 15 27** ..



Kinkiladenda - Ume arropa

**argine**

www.lasonet.com/argine  
Tel. 943 13 48 89

7,5eko DESKONTUA FAMILIA UGARJEN TXARTELAREKIN

Automóviles ZARAUZ

CITROËN ZERBITZU OFIZIALA

Itzitalu berriak eta ia berriak salgi

ZARAUZ, Tel. 943 13 13 50

**BARAKA**

estilo berria

Opitartekoak  
 Pintxoak  
 Plater koibinatnak  
 Etxeko janaria

943 13 13 12  
 Aitor

**BERME Aholkularitza S.L.**  
 Zerga eta lege aholkularitza

- ENHABILATUTAKO AHOULKARITZA
- ENHABILATUTA FIDELA
- ENHABILATUTA JORDUNA
- LEH-ORRATZ AHOULKARITZA
- ENHABILATUTA
- AHOULKUTZA ENHABILATUTA

Jabe Maitorola (Emand)  
 Tel. 943 43 09 23

Berme 194pp  
 48100 Berme (Bizkaia)  
 S/NOLAKARITZ  
 Email: aholkularitza@berme.com

**b**



# “Hamalau urterekin hasi ginen txapelketetan, baina bikote gisara”

## Olatz Lizaso eta Intza Unanue

Abeslariak

Urte batzuk daramatzate elkarrekin abesten Olatz Lizaso eta Intza Unanuek. Ikastolaren eta Olatz Zugastiren ekimenez sortutako *Olaxka* abesbatzan hasi zuten bidea eta ordutik hona Zugastirekin jarraitu dute kantuaren munduan.

### IRATIAGIRREAZALDEGI

Gipuzkoako Kantu Txapelketan bigarrenak izan ziren 2011n eta 2012koan kanporaketa jokatu dute dagoeneko. Aurten, bakarlari gisa aritu da Intza eta Olatzek koroak egin dizkie hainbat abeslariari.

#### Nola hasi zineten kantuan?

Intza: Ikastolako koroan. Zaletasuna, etxetik datorkit, amonarengandik. Olatz: Lehendik beste batzuk zeuden taldean eta gero sartu ginen, martxan jarraitzeko. Etxean, amak ere abesten du. **Gero, Olaxkarako pausoa eman zenuten.** O: 12 urterekin hasi ginen eta taldean aldatetak egon arren, gu hasieratik gaude. Aurrekoek utzi egin nahi zuten eta irakasleek taldea galtzerik nahi ez zuten, guri eman ziguten aukera. Olatz Zugas-

tiren ideia euskal kanta zaharrak, herrikoiak, abestea zen; ez egungo kantuak.

I: Askotan eskatu izan diogu Olatzi gaur egungo kantuak abestea, baina konturatu gara ez dela egokia; asko entzun ditugunez, imitatzerajo baitezakegu.

#### Olaxkarekin hainbat ekitaldi esanguratsutan parte hartu duzue, ezta?

O: Manuel Lasarteren omenaldian; Gas-teizen, ikastolen ekitaldi batean; eta herriko beste hainbatetan.

I: Benito Lertxundiren kontzertu batean, Kultur Aniztasunaren jaian...

#### Eta txapelketetan?

I: Olaxkaren izenean ez ginen txapelketetara joan. 14 urterekin hasi ginen txapelketetan, baina bikote gisara.

#### Txapelketan aritzeaz gain beste non-bait ere abesten duzue?

I: Bai, nik Benito Lertxundiren kontzer-

tuetan koroak egiten ditut Olatz Zugastirekin batera. Hurrengo kontzertuak azaroaren 16an, Zallan eta 17an Donostiako Kursaallean izango dira.

#### Txapelketarako non entseatzen duzue?

O: Astean behin elkartzen gara Ikastolan. Gu bioz gain gehiagok ere entseatzen dute: Zarauzko Paul Beitiak gitarrarekin eta Eneritz Aulestiak abesten, Aiako Iñaki Lizarraldekan kantuan eta Orioko Julen Alonsok eta Iker Urdangarinek soinua erekin eta perkusioarekin.

I: Txapelketara begira hasi ginen elkartzen, baina orain, beharbada, jarraitu egingo dugu.

O: Hiru abestirekin aurkeztu gara txapelketara: bat bakarlari moduan ari den bitartean besteok koroak egiten ditugu, denok txandaka.

#### “Konturatu gara ez dela egokia gaur egungo abestiak kantatzea; asko entzun ditugunez, imitatzerajo baitezakegu.”

“Badakigu beste abeslariak maila ona dutela. Hala ere, kontua gu agertokian gustura aritzea da”

#### Abestiak ere sortzen dituzue, ezta?

I: Guk zehazki ez, baina taldean badira sortzailak. Txapelketarako kantuaren doinua, Julenek Harribilentzako sortu zuen: *Argi-ilun*. Hitzak Intzaren ahizpa Goiurirenak dira.

#### Txapelketan aldatetak izan dira aurten.

I: Orain arte kanporaketa izan da lehenengo eta finala gero, baina aurten parte hartzaile gutxi garen, denok izango gara finalean, azaroaren 18an Donostiako Antzoki Zaharrean.

O: Sarietan ere aldatetak izan dira. Lehen bakarka, binaka eta taldeka sailba koitzeko bina sari ematen zituzten. Aurten, orokorrean hiru sari banatuko dituzte, eta, horrez gain, sorkuntzakoa.

#### Nola aurreikusten duzue finala?

O: Ez ditugu partaide guztiak ezagutzen, beraz, zaila da esatea. Txapelketetan urduri egon arren, gustura aritzen gara. Besteek nola abesten duten ikusita, gure mailakoak badirela badakigu.

I: Berrie ez dakigu lehengoan zer moduz abestu zuten. Baina badakigu batzuk oso maila ona dutela. Hala ere, kontua gu agertokian gustura aritzea da.



KARKARA



## » AGENDA



# Musika Santa Zezilia egunean

Azaroaren 22an Santa Zezilia eguna denez, Danbolin Musika Eskolako txistulari, trikitilari eta musika mintzairako ikasleek kalejira egingo dute 17:00etan Kultur Etxe atzeko plazatik abiatuta. Han pianojoleak arituko dira, Goxoki pareko parkean gitarra taldea, Ikastolako pergolan biolinak eta, azkenik, Herriko Plazan banda. 19:00etan, kontzertua izango da ikasle eta irakasleen eskutik Kultur Etxean eta bukaeran diplomak banatuko dituzte.

azokara. Bazkaria Lasa jate-txean. Ondoren, Bergarako alde zaharrean bisita. 35 euro. Txartela erosteko azaroaren 27an, 16:00etatik 18:00etara, Zaharren Babeslekuan.

## Aia

## Orio

### Haziak

■ Azaroaren 10ean, hazi banaketa, Herrioren eskutik. Hemengo landareen haziak emango dituzte. 11:00etatik 14:00etara, Herriko Plazan.

### Ikastaroa

■ Astelehenean, 6 urtetik aurrerako umeentzat *Brain Gym* saioak. Mandalara taldearen lokalean. Beharrezkoa da aurrez izena ematea. Irkus Fernandez: 655 726 291.

■ Azaroaren 24an eta 25ean. Chikung CFQ 2. maila, *Meditazioa argi sendagarrian*. Irakasleak: Manuel J. Dominguez eta Ana Rodriguez. 09:30etik 14:30era. Mandalara taldearen lokalean. Informazio gehiago: 648 487 489 edo [mandalarataldea@gmail.com](mailto:mandalarataldea@gmail.com).

### Informatika

■ Azaroaren 12an, 19an eta 26an. 16:00etatik 20:00etara egongo da dinamizatzaila KZ gunean, Kultur Etxean.

### Hitzaldia

■ Azaroaren 16an, *Mindfulness* - estresa gutxitzea-buruzko hitzaldia. Hizlaria: Roberto Altzibar. 20:00etan, Mandalara taldearen Antxiola kaleko lokal berrian.

### Erakusketa

■ Azaroaren 16ra arte, animalia hegalariei buruzko *Hegan* erakusketa. Argazkilariak: Jose Mari Llavori, Antton Alberdi, Ander Olaizola eta Iñaki Mezquita. Euskal Natura elkartearen eta Herri natura taldearen eskutik. Erakusketa ikusteko: 10:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara, Kultur Etxean.

### Traste zaharrak

■ Azaroaren 14an eta 28an. Traste zaharren bilketa ohiko zabor ontzien ondoan. Trasteak atera aurretik udaletxera deitu zer botako duzuen jakinaraziz. Tf.: 943 83 03 46.

### Bingoa

■ Azaroaren 14an, 21ean eta 28an, bingo, Zaharren Babeslekuak antolatuta. 16:30etik 18:30era, Kultur Etxean.

### Ipuin Kontalaria

■ Azaroaren 16an. Judith Huegun ipuin kontalariaren saioa umeentzako. 18:00etan, Udal liburutegian.

### Irteera

■ Abenduaren 13an, Zumarraga eta Bergarara irteera, Zaharren Babeslekuak antolatuta. 09:30ean Oriotik abiatu eta Zumarragako Santa Luziako

### Podologoia

■ Azaroaren 17an, podologoaren kontsulta. Ordua hartzeko deitu: 943 13 11 44.

### Silo-Bolak

■ Azaroaren 13an, silo-bolen bilketa. Informazioa: Urkome (943 81 65 00) edo Igor (660 04 97 51).

### Gaztainerre eguna

■ Azaroaren 18an, umeentzako ikuskizuna eta ondoren, gaztainak erreko dituzte eta freskagarriak ere izango dira. Otar baten zozketa ere egingo dute. 17:00etan hasita, Herriko Plazan, euria eginez gero frontoian.

**Atzeko azala:** Aiako Urdaneta auzoa XX. mendean

**Iturria:** Aiako Udala

